

NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA BERRANTOLATZEKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN BALORAZIO TXOSTENA.

SARRERA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, behin jakinda Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legearen proiektu bat egin gogo zuela, prozesu parte-hartzaile bat jarri zuen martxan, ezagutzeko zer proposatzen zuten toki entitateek alor horretan, eta, horretan oinarrituta emateko bere iritzia proiektu horren inguruan.

Lehendabiziko fasean, Nafarroako Gobernuak ezein agiri aurkeztu baino lehenago, berrantolaketa gidatu behar zuten printzipioak zehaztu ziren, baita kontuan hartu beharreko proposamen batzuk ere. Hori guztia 2016ko ekainean helarazi zitzaion Toki Administrazioko Departamentuari.

Bigarren fasean, Nafarroako Gobernuak berrantolaketarako ildo nagusien agiria aurkeztu ondoan, dokumentu horren balorazioa egin zen, eta hasiera batean adostutako printzipio eta proposamenekin erkatu. Balorazio hori 2017ko ekainean helarazi zitzaion Nafarroako Gobernuari, kontuan har zezan aurreproiektua prestatzeko orduan.

Eta joan den maiatzaren 21ean helarazi zion Nafarroako Gobernuak NUKFri Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legearen aurreproiektua. Hura aztertu eta prozesu parte-hartzailean adostutakoarekin erkatu ondoan, txosten hau prestatu da NUKFn, euskarria izan dadin toki entitateen ordezkariarentzat, behar adinako informazioa izan dezaten bere iritzia emateko eta NUKFren Batzar Nagusiak erabakia hartzeko.

AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA

Aurreproiektu honen xedea da Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzea, eta, horretarako, orain hura arautzen duten bi legeak aldatu gogo ditu: 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, eta 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Aurreproiektu honek helburu du, zioen azalpenean dioenez, toki administrazioa berrantolatzea, honako honetan sostengatuta: eskumenak argitasunez banatzea, toki maila berri bat ezartzea, arautzeko udalez gaindiko entitateen ugaltze gehiegizkoa eta, zenbait kasutan, eraginkortasunik gabekoa (dauden baliabideak behar baino gutxiago erabiltzea ekarri duena), eta finantzazio eredu berri bat finkatzea.

Toki entitateek bat egiten zuten hiru helburu horiekin. Izan ere, prozesuan zehaztu zen berrantolaketak hiru gairi heldu behar zuela nahitaez: eskumenak, egitura eta finantzazioa. Aurreproiektuak nolabaiteko zehaztasunak ematen ditu lurraldearen mapari eta egiturari buruz. Nolanahi ere, ez ditu behar bezala garatzen eskumenen eta finantzazioaren inguruko puntuak. Zioen azalpenak, horri dagokionez, xedatzen du ezen parte hartzearen portzentajea geroago zehaztuko dela, berariazko arau batekin, eta, kalkulu horretarako, beharrezko azterketak egin beharko direla. Lan horretan, halaber, eskumenak mugatu eta argitu beharko dira, zeren, egun, nahasturik agertzen baitira udalen eta erkidegoaren eskumenen artean.

TOKI ENTITATE MOTAK

Foru Legearen aurreproiektuak, NUKFren lehendabiziko proposamenetan adierazten zen moduan, oraingo lurralde entitateei eusten die, bai udalerriei, bai kontzejuei. Eskualdeei ere ematen die izaera hori, lurralde entitatearena, berrantolaketaren gako baitira. Orain idatzita dagoen bezala, mankomunitateek eta batasun tradizionalek ere toki entitateen izaerari eusten diote. Halaber, mankomunitate mota berri bat sortzen du: planifikazio orokorreko mankomunitatea.

Bestalde, honako hauek uzten diote toki entitate izateari: administrazio barrutiak, partzuergoak eta administrazio zerbitzuen elkarteak.

Beraz, toki entitatearen tipologia berria da eskualdea. Horrek berarekin dakartzan berritasunen artean, nabarmendu behar da udalez gaindiko toki entitate gisa eratu dela, eta, haren bitartez, egun udalez gaindi dagoen esparrua berrantolatu eta sinplifikatu gogo dela.

Prozesu parte-hartzailean, halaber, egiaztatu zen egun udalez gaindi dagoen esparrua berrantolatu eta sinplifikatu beharra dagoela. Izan ere, eskualdea jo zen egokientzat toki administrazioaren mapa berrantolatzeko, ñabardurak ñabardura haien eraketari dagokionez, zehazki, haien antolamenduari eta eskumenei dagokienez.

Planifikazio orokorreko mankomunitateekin, asmoa da entitate bat sortzea non toki entitateek eta Foru Komunitateak parte hartuko baitute batera, egun, hondakinen partzuergoan gertatzen den moduan, zeina, bere aldetik, mankomunitateek ordeztuko baitute. Bada, haiei oniritzia eman zaie bideragarriak diren neurrian, nahiz, juridikoki, zalantzazkoa den toki entitatearen izaera ematen ahal zaion toki entitate hutsez osatuta ez dagoen entitate bati.

KONTZEJUAK

Kontzejuek toki entitatearen izaerari eta eskumenei eusten diete.

Aldaketak egin dira, batez ere antolamenduari eta azkentzeari dagokienez.

Antolamenduaz, nabarmendu behar da eskumen guztiak udalerraren esku uzteko kasua arautu dela, kontzejuek konplitu ezin dituen bere legezko betebeharrak (administrazio elektronikoa, gardentasuna). Hala ere, bermatzen da kontzejuek, hala nahi badute, beren eskumenak baliatzen jarrai dezaketela, eta horretarako, funtzionarioen laguntza izanen dute, idazkaritza eta kontu-hartzailetza eginkizunetan. Horrek esan nahi du eginkizun horiek ez zaizkiola batzarreko edo kontzeju irekiko kide bati esleituko, eta, horren ordeztu, udaleko funtzionarioek edo eskualdekoek hartuko dituztela bere gain, eskumen guztiak udalaren esku utziz gero.

Konforme gaude idazkaritzaren eginkizunak kasuan kasuko udalerriko edo eskualdeko langileei ematearekin, baldin eta kontzejuaren funtzionamendu zuzena ez badu kaltetzen edo oztopatzen.

Hona hemen kontzejuaren antolamenduan eginiko beste aldaketa batzuk, haietako asko, NUKFk proposatuak:

- Kontzejuak udalerraren eta eskualdearen egitura organikoan parte hartzeko organo bat sortzea.
- Kontzejuko buruari zentsura mozioa egin ahal izatea.
- Kontzejua antolatzeko araubidea aldatu ahal izatea: kontzeju irekitik batzarrera eta alderantziz.
- Batzarraren eraketa aldatzea populazioaren arabera.

Azkontze kasuei dagokienez, gutxieneko populazio kopuru batera ez iristea ez da azkontzeko arrazoia izanen, eta beste aldetik, azkontzeko beste bi arrazoi sartzen dira: hautagaitzarik ez izatea bi hauteskunde prozesutan eta behar adinako baliabiderik ez edukitzea kontzejuaren eskumenak behar bezala erabiltzeko.

Behar adinako baliabiderik ez izateari dagokionez, aurreproiektua saiatu bada ere kontzeptu hori zehazten, xedatu baitu behar adinako baliabideak egonen direla kontzejuak aski diru-sarrera dituenen, berekiak izan edo Nafarroako Gobernuak edo udalak emandako transferentzia arruntak izan, irizten dugu kontzeptua ez dela zehatza, eta, hori dela eta, ez gaude konforme horrekin.

UDALERRIAK

Honako hau hitzartu zen prozesu parte-hartzailean: Udalerriak jarraitu behar du toki entitate oinarrizkoa eta garrantzizkoena izaten Foru Komunitatean, eta, hortaz, toki esparruan kokatzen diren eskumen guztien titularra izaten, salbu eta kontzejuei esleitzen zaizkienak, ezertan ukatu gabe borondatez udalez gaindiko esparruko beste baten esku uzten ahal dituztela, batez ere haiek erabiltzea zaila denean udalerrarentzat eta komenigarria denean ekonomia eta eraginkortasuna direla eta.

Aurreproiektuak udalerrari aitortzen dio oinarrizko toki entitatearen izaera, nahiz, zenbait xedapenetan, izaera hori zalantzan jartzen den, besteak beste, arrazoi hauengatik:

1.-Udalaren eskumen batzuk eskualdeari esleitzen zaizkio zuzenean

Udalek eskumenak eskualdearen esku uztea da eskualdeek eskumenak bereganatzeko duten bide nagusia, prozesu parte-hartzailean erabakitakoarekin bat. Haatik, zenbait kasutan, modu zuzenean esleitzen zaizkie eskualdeei udalen eskumenak.

Hala gertatzen da kasu hauetan: uraren goi hornidura, hondakinen tratamendua eta lehen mailako arretaren gizarte zerbitzuak.

Prozesu parte-hartzailean hitzartu zen uraren ziklo integralaren, hondakinen eta lehen mailako arretaren gizarte zerbitzuen eskumen guztiak udalez gaindiko esparruan erabili beharko liratekeela, hori egokiagoa zelakoan, baina hautetsien %49 agertu ziren eskumen horiek legez eskualdeari esleitzearen kontra, eta %44, berriz, alde.

Lehenengo bi eskumenei dagokienez, Nafarroako Gobernuak uste du ez zaiela kalterik egiten udal eskumenei, ulertzen baitu autonomia erkidegoarenak direla eskumenak. Nolanahi ere den, egia bada ere Nafarroako Gobernuak esku hartu behar duela eskumen horiek erabiltzeko, lankidetzarako eskumena baitu, ulertzen da udalenak direla eskumenok, eta toki entitateek hala erabili eta finantzatu dituztela orain arte.

Lehen mailako arretaren gizarte zerbitzuen gaineko eskumena dela eta, Nafarroako Gobernuak aitortzen du udalak direla horren titularrak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege indardunarekin bat. Hala ere, ulertzen du aurreproiektu horren bidez gaitasuna duela horren gaineko titulartasuna eskualdeari esleitzeko.

2.- Ez da zehazten nori dagozkion egun udalen esku dauden zenbait eskumen.

Bestalde, aurreproiektuak ez du zehazten nor den egun udalen esku dauden zenbait eskumenen titularra, besteak beste, musika eskolena, kultur ekipamenduena, liburutegiena, artxibo historikoena edo jarduera ekonomikoen industrialdeena. Prozesuan erabaki zenaren arabera, eskumen horiek toki esparruan mantendu gogo dira.

Orobat, ez da zehazten nori dagozkion eskumen batzuk: udal kontsultategien mantentze eta funtzionamendu lanak, ikastetxeen mantentze eta zaintza lanak eta 0-3 urtekoendako Haur Hezkuntzako ikastetxeen kudeaketa. Prozesu parte-hartzailean, erabaki zen horren gaineko eskumenak erkidegoari pasatzea.

Zortzigarren xedapen iragankorraren arabera, udalerriek jarraituko dute, oraingoz, eskumen horiek erabiltzen, zeren aurreproiektuak geroratzen baitu eskumenen esleipena, 23/2014 Foru Legeak eskatzen duena.

3.- Ordezkaritasuna galtzen da toki entitateek parte hartzen duten foru organoetan.

Orain arte, toki entitateen esku zegoen toki esparruaren ordezkaritza orokorra, bereizi gabe toki entitateen artean. Haiek biltzen dituen entitateari (NUKFri, alegia) zegokion ordezkaritza esleitzea. Aurreproiektuak bereizten ditu, batetik, udalei eta kontzejuei dagozkien ordezkaritza (NUKFk izendatu behar duena), eta bestetik, eskualdeena, zeinaren izendapena ez zaio NUKFri esleitzen.

Udalerrria toki entitate garrantzikoena izateak ez du bat egiten aurreproiektuak xedatu duenarekin toki esparruaren partaidetza duten foru organoetan toki entitateek duten ordezkaritzari buruz: batik bat Toki Araubideko Foru Batzordea, bi administrazioen arteko foroa eta Lurralde Mugaketako Foru Batzordea.

Hauxe ondorioztatu da horren inguruan:

- a. Toki entitateen ordezkaritzak toki entitate guztiena izan behar duela.
- b. Kasu guztietan, NUKFri dagokiola ordezkaritza izendatzea, toki entitate guztiak elkartzen dituen entitatea den aldetik, eta, kasua bada, hari dagokiola, halaber, lurraldeen arteko oreka eta toki entitate mota desberdinen presentzia bermatzea. Horretarako, NUKFk bere gain hartzen du eskualde guztien ordezkaritza izendatzeko konpromisoa.

• Idazkaritza eta kontu-hartzailletza

Udalerrietako idazkaritzaren eta kontu-hartzailtzaren lanpostuak ukitzen ditu aurreproiektuak.

Oro har, 1.500 edo 3.000 biztanletik gorako udalerritan baino ez da egonen, hurrenez hurren, idazkaritzaren eta kontu-hartzailtzaren berariazko lanpostuak.

Bi salbuespen daude:

1.500 biztanletik beherako udalerriek bi kasutan izan dezakete idazkaritzaren berariazko lanpostua:

- Udalerrri konposatua bada, idazkaritza lanpostua badu Foru Legeak indarra hartzen duenean, eta hiriguneen sakabanaketa dela-eta komenigarria bada lanpostu hori edukitzea.
- Azken bost urtean 500.000 eurotik gorako urteko gastu arrunta izan duten udalerrriak.

2.000 biztanletik gorako udalerriek izan dezakete kontu-hartzaitzaren berriazko lanpostua, baldin eta sortua badute lanpostu hori plantilla organikoan eta hari eusten badiote Legeak indarra hartzen duenean.

Biztanle kopuru gutxiago duten udalerrietan, eskualdeari dagozkio idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren eginkizunak.

Idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren lanpostuak betetzeari dagokionez, berriazko lanpostu berekia duten udalerrietan, aurreproiektuak ezartzen du ezen, hiru hilabeteko epean Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legeak indarra hartzen duenetik aurrera, merezimendu lehiaketa baten deialdia eginen dela, eta gero, oposizio-lehiaketarena.

Nolanahi ere, idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren berriazko lanpostu berekia ez duten udalerrietan, ez badituzte plantillan lanpostu horiek foru legeak indarra hartzen duenean, eskualdea sortzen duen foru legeak indarra hartu arte iraunen dute lanpostu horiek. Une horretatik aurrera, urtebete izanen dute eskualdeek kasuan kasuko plantilla organikoa zehaztu eta onesteko eta hura betetzeari ekiteko.

Halaber, aurreproiektuak B mailako esku-hartzaitzaren sailkapena kentzen du eta, hortaz, A mailan sailkatuko dira lanpostuak. Egun B mailan aritzen diren kontu-hartzaile funtzionarioek parte hartzen ahalko dute maila igotzeko prozeduretan. A mailara igotzeko titulaziorik ez dutenek B mailan jarraituko dute, iraungitzeko egoeran.

Eskualdeko langileak idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren lanpostuetan aritzeari dagokionez berriazko lanposturik ez duten udalerrietan, konforme gaude, baldin eta zerbitzu egokia eta beharrezko arreta bermatzen badira.

ESKUALDEAK

Berrantolaketaren gakoa da eskualdea. Toki administrazioaren bigarren maila berrantolatzean oinarritzen da.

Aurreproiektuan, udalez gaindiko toki entitate gisa eratzen da eskualdea, udalez gaindiko jarduerak kudeatu eta zerbitzuak ematen dituenak.

Lurralde entitatea den aldetik, udalerriek berezko dituzten eskumenak esleitzen zaizkio, desjabetzekoa barne, eta beste eskumen berezko batzuk esleitzen zaizkio, nahitaez bere gain hartu behar dituenak.

Eskualde bakoitzak bere lurraldeko udalez gaindiko entitate guztien tokia hartuko du, salbu eta batasun tradizionalena, horiek gorde egiten baitira.

Aurreproiektuak hamabi eskualde aurreikusten ditu. Horietako bi bina azpieskualdetan banatzen dira.

Prozesu parte-hartzailean eskualdea egokitzen joan zen toki administrazioaren mapa berrantolatzeke. Dena dela, desadostasunak daude aurreproiektuan eskualdeari ematen zaizkion ezaugarri batzuekin, batez ere eskumenei eta antolamenduari dagokionez, ondoan zehazten den moduan.

- **Azpieskualdeak**

Hasiera batean, azpieskualdea aurreikusita ez zegoenez, prozesu parte-hartzailean ezin izan da eztabaidatu horretaz.

Hala ere, aurreproiektuaren oraingo arauketari dagokionez, ikusi da zenbait udalerrri ez daudela ados, batetik azpieskualderik ez egiteagatik beren eskualdean eta, beste batzuk, berriz, azpieskualdeak eratzeagatik beren eskualdean. Halaber, udalerriren batek eskatzen du egokitu zaion eskualdeaz bestelako batean sartzeko.

Hori dela eta, ondorioztatu da azpieskualdeen azken eraketa udalerrien onespenera jarri beharko litzatekeela.

- **Eskumenak**

Eskumenak eskualdeei esleitzeko modu desberdinak ezartzen ditu aurreproiektuak. Orain idatzita dagoen bezala, oro har eskatzen da udalerriek eskuordetzea edo oniritzia ematea eskualdeak eskumenak bereganatzeko. Nolanahi ere, beste eskumen batzuk zuzenean esleitzen zaizkio, berezko gisa: uraren goi hornidura, hiri hondakin solidoen tratamendua eta lehen mailako arretaren gizarte zerbitzuak.

Udalerriek ere eskumen horiek erabili ditzakete, hala eskatuz gero, ur horniduraren prozesu osoa kudeatzen badute, goikoa nahiz behekoa, eta, betiere, ez badute akuiferorik edo azpiegiturarik (araztegiak edo banaketa sareak) partekatzen beste udalerrri batekin.

Prozesu parte-hartzailean ondorioztatu zen hiru eskumen horiek udalenak direla, baina udalez gaindiko esparruan erabili beharko direla, egun esparru horretan ari baitira erabiltzen. Legez eta ez eskuordetzaren bidez esleitzeari dagokionez, hautetsien %49 agertu zen eskumen horiek legez esleitzeari kontra (%44, berriz, alde).

Eskualdeari esleitzen zaio, halaber, nahitaezko udal zerbitzuak eta beste batzuk koordinatzeko aukera, justifikazio teknikoa eta ekonomikoa egin ondoan, berezkoak ez diren eskumenak eta eskuordetzaren bidez esleitutakoak erabiltzean, justifikazio teknikoa eta ekonomikoa egin ondoan.

Udal eskumenez gain, autonomia erkidegoaren eskumen batzuk esleitzen zaizkio eskualdeari: eskualdearen planeamenduarena eta beste batzuk, lege sektorialen bidez edo Nafarroako Gobernuak eskuordetuta esleitzen zaizkionak.

Eskumen funtzionalekin batera, eskumen instrumentalak ere esleitzen zaizkie eskualdeei, hau da, udalei babestu eta laguntzekoak, Nafarroako Gobernuak sustatuko dituenak.

Orobat, proposatu zen udalei lagundu eta babesteko eskumenak hartu behar zituztela, eta eskatu Gobernuak finantza aldetik laguntzeko.

- **Sorrera**

Aurreproiektuak eskualdeak sortzeko prozedura arautzen du. Hasiera emateko, eskatzen da kasuan kasuko udalerrien heren bat ados egotea, edo hauteskunde-eroldaren erdia osatzen duten udalerrietako bat edo batzuk.

Gobernuak ere har dezake ekimena, urtebeteko epean udalek hartu ez badute.

Behin prozedura hasita, udalerrri eta kontzeju guztiei emanen zaie entzutea. Ukitutako udalerrrien eta kontzejuen iritzia ezagututa, Nafarroako Gobernuak erabakia hartuko du eskualdearen entitatearen behin betiko eraketaz eta bideragarritasunaz. Dena dela, eskualdea ezin izanen da eratu, udalerrrien bi herenak kontra agertzen badira berariaz, eta, betiere, horiek kasuan kasuko lurraldeko hauteskunde-eroldaren erdia osatzen badute.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren erabakia aldekoa bada, Eskualdearen Batzorde Teknikoa eratuko da, Nafarroako Gobernuaren, udalerrrien eta langileen ordezkariak osatua, eta horrek eskualdearen funtsezko ezaugarriak zehaztuko ditu (eskumenak, batzarreko kideak, langileen toki-aldaketa, ondasunak, gerakina, udalez gaindiko entitateen zorrak, etab.). Foru legearen bitartez eratuko da eskualdea.

Prozesu parte-hartzailean erabaki zen aurreproiektuan jaso den quoruma eskatu behar zela gutxienez, hala aurreikusita dagoelako toki araubideko oinarritzko araudian. Gainera, proposatu zen kontzejuei entzutea emateko tramitea eranstea eskualdea sortzeko prozedurari, eta hori ere jasota gelditu da.

- **Antolamendua**

Aurreproiektuak zehazten du honako hau egonen dela eskualde guztietan: burutza, gobernu batzordea eta eskualdeko batzarra. Batzarreko kideen kopurua ez dago zehaztuta, zeren eskualde bakoitza eratuko duen foru legean finkatuko baita. Era horretan, kideen kopurua desberdina izan daiteke eskualde bakoitzean.

Kontzejuet parte hartzeko berariazko organo bat ere aurreikusten da.

Eskualdeko batzarreko kideak izendatzeko, sistema bikoitza aurreikusten da, berdina eskualde guztietarako: kideen bi herenak udalek izendatuko dituzte eta, heren bat, berriz, alderdiek, udal hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren arabera.

Prozesu parte-hartzailean erabaki zen udalek izendatu behar dituztela eskualdeko batzarreko kide guzti-guztiak, zeren, horrela, bermatuko baita udalez gaindiko entitateak haiek osatzen dituzten udalerrien isla izanen direla, prozesuan hitzartu zen beste printzipio bat, alegia. Ildo horretan, eta, garrantzia duenez gero, proposamen hau igorri zitzaion Nafarroako Gobernuari:

Eskualdea osatzen duten udalerrien Osoko Bilkurek izendatuko dituzte eskualdeko batzarreko kideak, udalerrien populazioaren arabera, betiere bermatuz eskualdea osatzen duten udalerrri guztiek gutxienez ordezkaritza bat izanen dutela, eta aintzat harturik udal bakoitzean dagoen aniztasun politikoa.

Berebat, proposatu zen kontzejuen parte-hartzea izanen zuen aholkularitza organo bat izatea eskualdeak.

- **Udalez gaindiko entitate guztien ondorengoa**

Oro har, aurreikusten da eskualdeek udalez gaindiko entitate guztiak ordeztuko dituztela, batasun tradizionalak izan ezik. Horrek berarekin dakar entitate horiek iraungitzea eta eskualdearen esku uztea haien baliabide guztiak, materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan, baita zorrak eta gerakinak ere.

Udalez gaindiko inbertsioak eta eskualdeek bere gain hartutako langileak finantzatzeko erabiliko dira funts horiek.

Nolanahi ere, aurreproiektuak aurreikusten du bi kasutan ordezpena partziala izan daitekeela, eta beraz, mankomunitateei eutsi. Alde batetik, ordezturik geldituko den mankomunitatearen lurraldearen zati bat kasuan kasuko eskualdearen eremutik kanpo gelditzen denean, eta, bestetik, eskualdeak ez dituen bere gain hartzen mankomunitatearen eskumen guztiak.

Prozesu parte-hartzailean egiaztatu zen mankomunitateei eutsi behar zaiela gutxienez bildu diren bi kasu horietan. Orobat, zehaztu gabe daude zer irizpideri jarraituz eskualdatuko diren ondasun, zor eta langile guztiak, hori geroratu baita kasuan kasuko eskualdea sortuko duen foru legea onetsi arte.

FINANTZAZIOA

Aurreproiektuak adierazten duen moduan zioen azalpenean, finantzazio eredu berri bat ezarri gogo du, finantza nahikotasunaren, aurrekontu jasangarritasunaren, toki elkartasunaren eta autonomiaren eta lurralde orekaren printzipioekin bat. Horretarako, toki administrazioa eratuko duten entitateen puntu ekonomiko batzuk finkatzen ditu testuak, eta, batez ere, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen artikulua batzuk aldatzen ditu, finantzazio sistema tokiko egitura berrira egokitzeko, baita toki administrazioa eratuko duten toki entitateei eskumenak esleitzeko aldaketetara ere. Funtsean, itxura berria ematen dio Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari, eta doikuntza batzuk egin zenbait zerga figuratan.

- **Finantzazio eredurik ez**

Aurreproiektuak ez dakar finantzazio eredu itxi bat.

Lehenik, ez du ezartzen zer portzentajerekin parte hartuko duten toki ogasunek Nafarroako tributuetan, eta, hortaz, ezin da jakin nola geldituko den finantzazioa legeak indarra hartzen duenean.

Bigarrenik, ez zaizkie argi esleitzen eskumenak toki entitateei, eta, hortaz, ezin da finkatu zenbatekoa den beharrezko finantzazioa.

Hirugarrenik, ez da denbora tarterik ezartzen finkatzeko nola parte hartuko den tributuetan, parte hartu behar denerako, salbu eta plan zuzentzaileei lotutako inbertsio planen kasuan (haien aplikazio epea 4 urtekoa da).

Laugarrenik, iragarri da gizarte zerbitzuak arautuko direla segun eta nola banatzen diren haien eskumenak. Arauketaren tramitazioa legeak indarra hartu eta urtebetera hasiko da.

Bosgarrenik, aurreproiektuak ez die kontzejuei bermatzen finantza nahikotasuna, hura honen arabera izanen baita: tributuetan parte hartzetik lortzen diren baliabideak, edo udalerrien transferentziak, edo beren ondareen eta herri-lurren baliabideak. Horrek kontzejuak desagertzea ekar dezake, baliabide faltagatik.

Horren harira, prozesu parte-hartzailean erabaki zen Nafarroako tributuen portzentaje baten moduan zehaztu behar dela funtsa, gutxieneko berme batekin. Era berean, erabaki zen toki entitate guztietan bermatu behar dela oinarritzko zerbitzuei lotutako azpiegituren gutxieneko zuzkidura.

Kontzejuei dagokienez, erabaki zen behar adinako baliabide ekonomikoak izan behar dituztela, zuzenean parte hartuko dutela parte hartzeko funtsean eta legezko formula

iraunkorrek zehaztu behar direla baliabide ekonomikoak banatzeko udalerrriaren eta kontzejuen artean.

- **Toki Ogasunen Funtza nola arautu**

Aurreproiektuak funtsean aldatzen du Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikulua, Nafarroako zergetako parte-hartzea arautzen duena.

Zuzkidura, ezartzen duenez, Foru Komunitateak likidatutako zergen diru-sarrereren portzentaje bat izanen da, Estatuari eginiko ekarpena kendu ondoren. Portzentaje hori ez da orain zehaztu; aitzitik, geroratu da toki ogasunei buruzko foru araudi berria onetsi arte, eta toki entitateen eta Foru Komunitatearen artean eskumenak nola banatzen diren zehaztuko da.

Prozesu parte-hartzailean erabaki zen legeak gutxieneko portzentaje bat finkatu behar duela, %10ekoa, aurreproiektuaren aurreko idazketetan adierazten zen bezala. Portzentaje horren inguruan, zortzigarren xedapen iragankorrek hauxe dio 3. atalean: *“Kasu guztietan, aipatu portzentajea finkatzeko, hau hartuko da abiapuntu: 2018ko aurrekontuan Nafarroako toki entitateek jaso behar dutena transferentzia arruntengatik, kapital transferentziengatik eta departamentu bakoitzak ezarritako transferentzia finalistengatik.*

Hasierako portzentaje hori handitu edo gutxiko da, eskumenak nola banatzen diren foru lege honek indarra hartu ondoren araudian egiten diren aldaketetan, aurreko puntuan xedatutakoarekin bat.”

Funtza lau ildo edo azpifuntsetan egituratuko da:

1. Transferentzia arruntak, zerbitzuak **finantzazio moduluen bidez** finantzatzeko. Atal horretan, oraingo diru-laguntza finalistak erantsita daude, Nafarroako Gobernuak ezarritakoak finantzazioaren sistema egonkor eta objektiboaren bidez ematen diren zerbitzuak kofinantzatzeko. Horren xedea da banaketa egitea kontuan hartuz entitate bakoitzak dituen gastu beharrak behar-unitateen arabera neurtzen ahal diren zerbitzuetan.

Prozesu parte-hartzailean erabaki zen diru-laguntza finalistak kendu behar zirela, ahal zen neurrian, eta funtsari atxikitako sistema egonkor batera pasatu.

Zortzigarren xedapen iragankorrean zenbait gai aipatzen dira, egun transferentzia finalistek xedekoak eta funtsean modulu gisa erantsiko direnak. Horien artean, montepioen defizitaren finantzazioa, eskola kontzentrazioak, haur eskolak edo musika eskolak. Gainera, xedapen horrek iragartzen du egun toki entitateek modu inpropioan ematen dituzten zerbitzuen eskumenak esleituko direla, eta, kasu bada, finantzazio moduluetara erantsiko direla.

Prozesu parte-hartzailean erabaki zen berrantolaketa onetsiko duen legeak argi ezarri behar zuela administrazioen eskumenen banaketa, bai eta harekin bat heldu den finantzazio sistema bat ere, eta hori ez da gertatzen oraingo aurreproiektuarekin, beste fase baterako geroratzen baititu, zortzigarren xedapen iragankorrean eta aurreproiektuaren zioen azalpenean jasotzen den moduan.

2. **Determinazio libreko funts bat, baldintzatu gabea**, foru lege bidez arautuko diren irizpideen arabera banatua, printzipio hauek oinarri hartuta: justizia, proportzionaltasuna, gizarte-kohesioa, lurralde-oreka eta finantza-nahikotasuna. Foru lege batek ezarriko ditu banatzeko irizpideak eta formula. Zehaztu gabe dago norainoko iraupena izanen duen lege horrek eta zer entitate motak helduko dioten. Orobat, ez dago garbi eskualdeek parte hartuko duten funts horretan.
3. **Plan zuzentzaileei lotutako kapital transferentziak**. Lau urtetarako araututako planei aplikatuko zaizkie. Toki programazioko obrarik sartu ez denez funtsean, toki entitate bakoitzari ez zaizkio gutxienerako azpiegitura batzuk bermatzen, prozesu parte-hartzailean aldarrikatu zen moduan.
4. **Finantzaziorako berariazko ildoak**, egungo araudiko “Beste laguntza batzuk” atalean jasota daudenak. Aurreproiektuak ez ditu ildo horiek zehazten.

Prozesu parte-hartzailean erabaki zen egungo hiru ildoak berariaz sartu behar direla.

- **Eskualdeen baliabide ekonomikoak**

Eskualdeei esleitzen zaizkie, oro har, toki entitate guztiei esleitzen zaizkien baliabide guztiak, tributu gisakoak izan ala ez, baita Foru Komunitateko tribuuetako parte-hartzea ere, bere eskumenei dagokien moduan. Baina ez da zehazten nola finantzatuko diren berezko gisa esleitzen zaizkien eta egun udalerriek dituzten eskumenak, batez ere idazkaritzaren eta kontu-hartzailetzaren administrazio zerbitzuak. Zehaztu gabe gelditu da, orobat, nola finantzatuko diren eskumen horiek halako lanpostuak plantillan mantentzen dituzten udalerrietan, ez bada konpentsazio prozedurarik ezartzen populazioa dela-eta delako lanpostu horiek mantendu behar dituzten udalerrientzat; izan ere, lehenago partekatuta zeuden administrazio batasunetan, baina batasunak deseginen dira zati batean eskualdearekin bat egiteko.

Eskualdeak mankomunitateen baliabide ekonomikoekin ere finantzatuko dira; izan ere, eskubide eta betebeharrak ekonomiko guztiak eskualdatu behar dizkiete.

Honako hau erabaki zen eskualdeen finantzazioaren gainean:

1. Eskualdeak bereganatzen dituen udal eskumenen finantzazioa ez da zuzena izanen, eta eskumenak eskuordetzearen bidez esleitzeko sistema kontuan hartuko du.
2. Nafarroako Gobernuak eman beharko die finantzazioa, kostua adinakoa, esleitzen dizkien eskumenetarako.
3. Nafarroako Gobernuak finantzatu behar du eskualdeen zerbitzu instrumentalen zati bat.

- **Tributuetako aldaketak**

Testuak %0,25 handitzen du ondasunen gaineko kontribuzioaren gutxieneko tasa. Neurri horren helburu nagusia da presio fiskalaren desberdintasunak murriztea, baina ez dugu horren eragin ekonomikoari buruzko txostenik. Helburu bera edukita arautzen dira udalez gaindiko balorazio txostenak. Horrek bat egiten du prozesu parte-hartzailean fiskalitatearen desberdintasunak zuzentzeko eskatu zenarekin. Tributu horrekin lotuta dagoenez, etxebizitza hutsen gaineko zergaren tasa ere handitzen da. Ezartzen da, halaber, zehapenak ezar dakizkiekeela balorazio txostenak eskatutako epeen barnean eguneratzen ez dituzten entitateei.

Prozesu parte-hartzailean, adostasuna agertu zen neurri hauekin: ondasunen gaineko kontribuzioaren gutxieneko tasa eta etxebizitza hutsen gaineko zerga handitzea eta balorazio txostenak eguneratzea. Ondasunen gaineko kontribuzioaren gutxieneko tasaz, erabaki zen poliki-poliki handitu behar zela trantsizio epe batean.